

IRAULTZEKO MAKINA BATEN ETA AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEKO ETA HORIETAKO MATERIALA BIRJARTZEKO GAILU BATEN HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2015 EPT 30

..... (e)an onar
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 URT. ENE. 30



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkaririk



1. HELBURUA

Baldintza agiri honen helburua iraultzeko makina berri baten eta aireztapen kanalak garbitzeko eta birjartzeko lanak automatizatzeko gailu baten hornikuntza da, Bergaran (Gipuzkoa) kokatutako Epeleko Konpostatze Plantako konpostatze prozesurako.

2. KONTRATU HONETAN SARTZEN DEN PROZESUKO MAKINERIA

2.1 IRAULTZEKO MAKINA BAT

Traktore bidez mugituko den iraultzeko makina bat behar da.

Horretarako, traktoreak baldintza tekniko batzuk bete behar ditu ezinbestean, honakoak:

Gutxienez 230 CVko potentzia, atzeko igogailu hidraulikoaren besoetako muturretan gutxienez 11.000 kg-ko igotze-ahalmena eta gutxieneko emari hidrauliko bat (170 litro/minutu, 200 bareko presioan), transmisio aldagarri jarraitu progresiboa gestio dinamikoz, eta eragingailu elektriko-hidraulikotik independentea den indar-hargunea. Gidatzeko lekua alderantzikagarria izango da -serietikoa-, hau da, eserlekua eta aginteak alderantzikagarriak izango dira, gidatzeko norabide bietarako.

Iraultzeko makinak aukera eman beharko du hainbat meta motatan erabiltzeko, hala nola triangeluar, trapezoide eta erdi-biribiletan. Egokitu egin beharko du,

halaber, meta neurri desberdinetara: meta zabalera 4,5 eta 6 m bitartekoak izango dira, meta irauliaren eta meta berriaren ardatz arteko tartea 5,5 eta 4,5 m bitartekoak izango dira, eta meten altuera 2,3 m-koa; 60 °ko ezpona duten zabaldietan ere lana egiteko balio beharko du.

Iraultzeko makinak ahalbidetu beharko du metari edo zabaldiri aurrez aurre ekitea, hain zuzen traktore eragilearen gurrpilek uneoro lan egin dezaten iraultzeko makinak berak egindako korridore garbi baten gainean; materiala albora botako da, horrela meta berria egiteko.

Eskatzen diren ezaugarri teknikoak:

Gutxi gorabeherako iraulketa-ahalmena: 1.500 m³/h

Laneko sekzioa: gutxieneko lan zabalera 3,7 m-koa, eta altuera 2,3 m-koa.

Danborraren gehienezko errotazioa: 130 bira/minutu.

Berezko gehienezko pisua: 6.000 kg.

Materialaren mugimendua albora izango da beti.

Deskargan materiala bizkortu egingo da, grabitatearen indarrez erori bitartean materialaren aireztapena ahalbidetuko duen zerrenda baten bidez.

Lubrifikazio zentralerako eta transmisioen tenperatura kontrolatzeko sistema automatikoak edukiko ditu.

2.2 AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEA ETA KANAL HORIEK MATERIAL EGITURATZAILE IRAGAZLEZ BIRJARTZEA AUTOMATIZATZEKO GAILU BAT

Gailu edo lanabes bat behar da, traktore batez erabiltzeko bat, materiala garbitzeko eta birjartzeko lanak automatizatzearen. Aireztapen kanalen neurrietara egokitua izan behar du, 1. eranskineko planoan zehazten den Epeleko konpostatze planta eraikitze proiektuaren arabera.



3. ENTREGATZEKO LEKUA ETA EPEA

Materiala emateko gehieneko epea 3 HILABETEKOA (12 aste) izango da, kontratua sinatzen denetik kontaktzen hasita. Materiala GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUK adierazten duen unean eta lekuan emango da. GHK-k ekipoaren entrega-data geroratzea eskatzen badu, esleipendunak bere gain hartu beharko ditu sor daitezkeen kostuak.

Esleipen prezioan sartuta dago makineria GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUK adierazitako lekuan ematea.

Era berean, gutxienez 8 orduko prestakuntza emango zaie GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA S.A.k adierazten dituen langileei, makineria erabiltzeko, erabilera bakoitzaren ondotik egin beharreko garbitze-lanetarako, beharrezko mantentze-lan arruntetarako, eta urtean behin edo 1.000 lanorduan behin egin beharreko mantentze-lanerako. Lan hori zehaztuta egongo da eskaintza honetan sartzen den makina bakoitzari dagokionez.

4. ESKAINTZA AURKEZTEA

Lizitatzaille bakoitzak txosten tekniko bat erantsi beharko dio bere eskaintzari. Horretan, berariaz egiaztatuko dira, gutxienez idatziz eta baliabide grafikoak erabiliz, baldintza agiri honetako 2. apartatuan deskribatutako ezaugarri tekniko guztiak, eta, horretaz gain, ondoren aipatzen den informazioa behintzat erantsi beharko da:

4.1. OINARRIZKO EZAUGARRIAK

4.1.1. IRAULTZEKO MAKINA:

- Makinaren neurriak eta makinak lan egin dezakeen meta tipologiak eta bestelako aukerak.
- Lan ahalmena, m³/h gisa adierazita.
- Traktoreak behar duen gutxieneko potentzia.

- Danborraren gehienezko errotazioa, bira/minutu gisa adierazita.
- Lanaren zabalera, metrotan.

4.1.2 AIREZTAPEN KANALETAKO LANAK AUTOMATIZATZEKO GAILUA

- Gailuaren plano zehatza, bereziki zaindu beharreko piezen mantentze-lanak zehaztuta.
- Gailua erabiltzeko behar den traktore tipologia.
- Material egituratzailearen kalapatxaren autonomia, kanaleko metro lineal gisa adierazita, 1. eranskineko planoaren arabera.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015eko urt. 30

Antebado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015

URT. ENE. 30



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkariak,

4.2. AUKERAKO EZAUGARRIAK

Lizitazailerak bakoitzak makineria hornitzeko edo makineria horrek prozesuan zehar izango duen eraginkortasunerako egoki irizitako aukerako ezaugarriak zehaztuko dira.

4.3. DOKUMENTAZIO OROKORRA

- Makinek dauzkaten zirkuitu hidrauliko, elektriko eta elektronikoen eskemak.
- Makinak erabiltzeko eta mantentzeko gidaliburua, gaztelaniaz.

4.4. BESTELAKO DOKUMENTAZIOA

Behin betiko esleipen datatik aurrera entrega-epeak hartuko duen aste kopurua adierazi beharko da dokumentazio teknikoaren gutun-azalean.

Era berean, lizitazailerak hainbat ezaugarri zehaztuko dituzte bere eskaintzetan, honakoak:

- Erregai edo elektrizitate kontsumoa.
- Adostasun adierazpena.
- CE marka.

5. MANTENIMENDUA

Lizitaztaileak eman dezakeen laguntza teknikorako zerbitzua zehaztuko da, eskainiko duen zerbitzu teknikoa adieraziz. Lizitaztaileak ezin badu zerbitzu hori bere baliabideez eman, adierazi egingo du zer enpresa homologatuk edo lantegi hitzartuk emango duen saldu osteko zerbitzua. Logikoa denez, Bergarako Epeleko Konpostatze Plantatik hurbileneko biltegia eta lantegia zehaztu beharko dira.

Ohiz egin beharreko garbitze- eta mantentze-lanak zehaztuko dira, aldi behin egin beharrekoekin batera. Azken hauen kasuan zehaztu egingo da zenbat lanordutatik behin edo zenbat denboratan behin egin behar diren, kostuarekin batera.

Lizitazio prezioaren barnean ez dago jasota prebentzioko mantentze-zerbitzuaren kostua, bai ordea konpontze-zerbitzuarena; azken honetan, eskulana eta materialak sartzen dira, lehenbiziko bi urtean zehar. Memoria edo txosten teknikoan zehaztu egingo dira egin behar diren prebentzioko mantentze-lanak, horietako bakoitzari dagokionez argituz bai materialak bai eskulana. Lan horien denborazko definizioa egin beharko da, izan behar duten aldizkakotasunari dagokionez, eta kostuaren balorazio ekonomikoa ere egin beharko da.

lido honetatik, ordezkatu behar diren piezen eta beharrezko mantentze-lanen gutxi gorabeherako zerrenda bat egingo da, makinaren lanorduen arabera, dagokion banakapen ekonomikoarekin batera. Honetan materialak eta eskulana sartuko dira, eta loteslea izango da lehen bi urtean zehar. Esleipendunak bere zerbitzu teknikoaren bidez bermatuko du mantentze hori.

Era berean, doako prestakuntza emango zaie, 8 orduz gutxienez, GHK-k adierazten dituen langileei, iraultzeko makinako mantentze-lanetarako. Horniduran funtzionamenduaren eta mantentze-lanen espainolezko



GHK

Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

gidaliburuak sartuko dira.

6. BERME TEKNIKOAK

Lizitazio prezioan 24 hilabeteko berme bat sartzen da, makineria guztirako, materialak eta eskulana ere bertan sarturik. Bermearen balio epea Behin Betiko Harrera Akta sinatzen denean abiatuko da.

7. HOBEKUNTZAK

Lizitatzailleak baldintza agiri honetarako hobekuntzak proposatu ahal izango ditu, berak egoki deritzen bitartekoak eskainiz, eta eskaintzen duen hobekuntzaren alderdi teknikoak, ekonomikoak eta hobekuntza justifikatzekoak jasoz eta baloraturaz. GHK-ko teknikariek hobekuntza horiek baloratuko dituzte, Baldintza Teknikoen Agiri honetako 4. puntuan lizitatzailleek eskaintzen dutenaren arabera.

Hobekuntzek ez dute, inolaz ere, GHKrentzako kostu igoerarik ekarriko.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

2015 URT. 30

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,


2015 URT. 30
ENE.




GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkariak

I. ERANSKINA – AIREZTAPEN KANALAREN XEHETASUNA



		PROYECTO GHK GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA	
OBJETIVO PLANTA DE COMPOSICIÓN Y ESTADÍSTICA INICIAL EN EL LUGAR DE EFUELO, SERVICIO COMPARTIDO PLANTA EN TRANSFERENCIA CIVIL		FECHA 2015	
DESCRIPCIÓN DETALLE DE CANAL DE AIREACIÓN AIREZTAPEN KANALAREN XEHETASUN PLANOA		ESCALA 1:10	
PROYECTISTA GHK		FECHA 2015	

